

PSIKOLOGIAKO PRACTICUMA

PSIKOLOGIA FAKULTATEA  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
2011-12

## Aurkibidea

1. PRACTICUMA PSIKOLOGIAKO IKASKETETAN .....	4
1.1. SARRERA .....	4
1.2. PRACTICUMAREN HELBURU OROKORRAK .....	4
1.3. PRACTICUMAREN ANTOLAKETA.....	4
1.3.1. Koordinatzaileak.....	5
1.3.2. Barruko tutoreak .....	5
1.3.3. Kanpoko tutoreak.....	5
1.3.4. Practicumeko Teknikaria .....	5
1.4. IKASLEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .....	6
1.4.1. Eskubideak.....	6
1.4.2. Betebeharrak.....	6
1.5. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA .....	6
1.5.1. Practicum Teorikoaren ebaluazioa.....	6
1.5.2. Practicum Praktikoaren ebaluazioa.....	6
2. PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMA.....	7
2.1. PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMAREN HELBURU OROKORRAK .	7
2.2. PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMERAKO AURREBALDINTZAK....	7
2.3. HELDUEN PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMA.....	7
2.3.1. Helduen Psikologia Klinikoko Practicumaren eremuak.....	7
2.3.2. Helburuak eta egin beharreko jarduerak.....	7
2.3.3. Helduen Psikologia Klinikoko Practicum Teorikoa .....	8
2.3.4. Practicum praktikoa .....	8
2.4.1. Zer da Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoko Practicuma?.....	9
2.4.2. Helburuak eta egin beharreko jarduerak.....	9
2.4.3. Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoko Practicum Teorikoa .....	10
2.4.4. Practicum Praktikoa .....	11
3. GIZARTE PSIKOLOGIA ETA ERAKUNDEEN PSIKOLOGIAKO PRACTICUMA .....	11
3.1. HELBURU OROKORRAK .....	12
3.2. LANAREN ETA ERAKUNDEEN PSIKOLOGIAKO PRACTICUMA .....	12
3.2.1. Lanaren eta Erakundeen Psikologiaren jardun-eremuak.....	12
3.2.2. Practicum Teorikoa .....	13
3.2.3. Practicum Praktikoa .....	13
3.2.5. Plazak Esleitzeko Prozesua .....	13
3.3. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMA.....	13
3.3.1. HELBURU OROKORRAK .....	13
3.3.2. GIZARTE ZERBITZUEN PRACTICUMA EGITEKO AURREBALDINTZAK .....	14
3.3.3. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMAREN JARDUN-EREMUAK .....	14
3.3.4. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMERAKO BEHARREZKO TREBETASUN SOZIALAK.....	14
3.3.5. EBALUAZIO SISTEMA.....	14
3.3.6. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMEKO AZPIESPEZIALITATEAK.....	14
4.1. HEZKUNTZA PSIKOLOGIAKO PRACTICUMAREN HELBURUAK .....	15
4.2. HEZKUNTZA PSIKOLOGIAKO PRACTICUMEKO JARDUERAK .....	15
4.2.1. Prebentzio Arloa (Prebentzio Laguntza) .....	15
4.2.2. Jardueren ebaluazio eta diagnostiko arloa .....	15

4.2.3. Laguntza Arloa (Prebentziozkoa ez den Laguntza) .....	15
4.3. PRACTICUM TEORIKOA .....	16
4.3.1. Practicum Teorikoaren edukiak .....	16
4.4. PRACTICUM PRAKTIKOA: .....	16
5. PSIKOLOGIAREN OINARRIZKO IKERKETAKO PRACTICUMA.....	18
5.1. HELBURU OROKORRAK .....	18
6. PSIKOLOGIA FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ARDURADUNEN ZERRENDA.....	18

## 1. PRACTICUMA PSIKOLOGIAKO IKASKETETAN

### 1.1. SARRERA

Psikologia lizentziaturako ikasketa-plan berrien arabera, nahitaezkoa da Practicum bat egitea. 93-01-12ko EAOn honela definitzen da Practicuma: Unibertsitatearekin hitzarmenak dituzten kanpoko zentroetan ikasleek egin behar dituzten lan-praktikak.

Akademikoki, UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Practicuma enborrezko bi irakasgaitan dago egituratuta, biak ere karrerako bosgarren urtean ikasi beharrekoak: "Practicum Teorikoa" eta "Practicum Praktikoa". Practicum Teorikoak 9 kreditu ditu; Praktikoak, berriz, 25 (250 ordu, gutxi gorabehera). Practicum Praktikoa egiteko ezinbestekoa da aurretik Teorikoa egitea.

Psikologia Fakultateak ondorengo Practicumak eskaintzen ditu:

Psikologia Klinikoko Practicuma (beste bi practicumetan banatuta dago):

- Haur eta gazteen Psikologia Klinikoa
- Helduen Psikologia Klinikoa

Psikohezkuntzako Esku-hartzearen Practicuma

Gizarte-Psikologia eta Erakundeen Psikologiako Practicuma (beste bi practicumetan banatuta dago):

- Gizarte Zerbitzuen Eremuan Esku-hartze Psikologikoa
- Lanaren eta Erakundeen Psikologia

Psikologiaren Oinarrizko Ikerketako Practicuma

### 1.2. PRACTICUMAREN HELBURU OROKORRAK

Practicumaren helburu nagusia ondorengoa da: ikasleak euren espezialitateko lan-jarduerara hurbiltzea, trebakuntza akademikoan eskuratutako trebetasunak praktikan jar ditzaten eta euren trebakuntza teorikoa osa dezaten.

Practicumeko espezialitate bakoitzaren berriazko helburuez gain, beste helburu orokor batzuk ere azpimarra daitezke:

- Ikaslea etorkizunean unitate profesional batean sartzeko eta egokitzeko bidea erraztea, erakunde edo lantokiko egituraketa eta funtzionamendua ezagututa.
- Ikaslea lan-eremuko harreman pertsonalen eta profesionalen dinamikara ohitzea.

### 1.3. PRACTICUMAREN ANTOLAKETA

Practicumaren antolaketan lau arduradun mota bereizten dira: koordinatzaileak, barruko tutoreak, kanpoko tutoreak eta practicumeko teknikaria.

### 1.3.1. Koordinatzaileak

Koordinatzaileen funtzioak hurrengoak dira:

- Erakunde eta zentroekin harremanak eta hitzarmenatarako proposamenak sustatzea. Zentroekin batera egin beharreko Practicum hauek lehenengo EHUko Psikologia Fakultateko Dekanoak eta dagozkien Saisetako Kontseiluek sinatu behar dituzte, eta gero Practicumeko Batzordeak.
- Zentroekin harremanetan egotea, aurkeztutako Practicum Proiektuetan kanpoko zentro laguntzaileen premiak eta eskaerak jasotzeko.
- Praktiketarako ikasleak hautatzea eta horietako bakoitzari practicum egokia ematea.
- Tutore-bekadunei bekak emateko eta/edo berritzeko pertsonarik egokienak hautatzea edo aldeko iritzia ematea.
- Tutore-bekadunei egin beharreko jardueren berri ematea eta guztiak koordinatzea.

### 1.3.2. Barruko tutoreak

Fakultateko Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduetako Saileko irakasleak izaten dira:

Barruko tutoreen funtzioak hurrengoak dira:

- Aldian behin (gutxienez hiru hilean bitan) zentroko profesionalarekin (kanpoko tutorearekin) harremanetan jartzea, praktikak egiten ari diren ikasleen lana gainbegiratzeko.
- Zentroan praktiketari ari diren bitartean ikasleek izan litzaketen zalantzak argitzea (ebaluaziorako baliabideak, esku hartzeko teknikak eta gai batzuen inguruko bibliografia...).
- Tutoretzapean duen ikasle bakoitza ebaluatzea, Practicum aldia bukatzen duenean.

### 1.3.3. Kanpoko tutoreak

Praktiketako Zentroko profesionalen bat izan ohi da, eta bere funtzioak hurrengoak dira:

- Barruko tutorearekin batera, ikasleak Zentroan izango duen jarduera planifikatzea.
- Zentroko praktikek irauten duten bitartean, ikaslearen jarduerak zuzentzea eta aholkuak ematea.
- Praktikak egiten ari den ikaslearen jarraipena egitea, barruko tutorearekin batera.
- Ikaslearen txostena egitea eta Fakultateko tutoreari bidaltzea, azken horrek Practicumeko jarduera balora dezan.

### 1.3.4. Practicumeko teknikaria

Practicumeko teknikaria fakultateko A.Z.P.a da eta dena antolatzeko eta practicumak ongi funtzionatzeko elkarlanean aritzen da. Bere funtzioak hurrengoak dira:

- Ikasleen aurre-inskripzioa (martxoan): bilera orokorrean egon, inskripzio orriak jaso, eta aurre-inskripzio zerrendak osatzea.
- Ikasleei informazioa ematea tutoretza orduetan. Informazioa hurrengo gaien ingurukoa:

Practicuma egiteko aurre-baldintzen inguruko informazioa

Datak, ordutegiak eta gelen inguruko informazioa hurrengo ekitaldietarako:

Practicumaren aurkezpena, eta aurre-inskripzioa  
Practicum teorikoko hitzaldiak  
Praktika zentroyen aukeraketa

- Practicum teoriko eta praktikoaren ebaluaketa prozedura eta irizpideak: ebaluaketa eta oroitidazkia egiteko orriak ematea ikasleei eta kanpoko tutoreei.
- Practicumaren kudeaketa administratiboan laguntzea barruko tutore eta koordinatzaileekin.

#### 1.4. IKASLEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

##### 1.4.1. Eskubideak

- Praktikek irauten duten bitartean, Unibertsitateko irakasle baten eta praktiketako Zentroko profesional baten tutoretza izatea.
- Barruko eta kanpoko tutoreen ziurtagiria lortzea.
- Praktika aldia eteteko eta/edo praktiketako Zentroa aldatzeko aukera izatea, beti ere bidezko arrazoiren bat dela kausa.

##### 1.4.2. Betebeharrak

- Kode Deontologikoa betetzea.
- Praktikak aurretik erabakitako egun eta baldintzetan hastea.
- Dagokion barruko tutoreari aurkezpen-orria ematea.
- Aldian behin barruko tutorearekin biltzea.
- Praktiketari egindako lanaren berri ematen duen oroitza-txostena aurkeztea.
- Erakundeek bertako profesionalei eskatzen dizkieten irizpide eta/edo araudiak betetzea.

#### 1.5. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

##### 1.5.1. Practicum Teorikoaren ebaluazioa

Azpipracticum bakoitzean practicum teorikoa modu ezberdinean ematen denez gero, bakoitzean modu ezberdinean ere egingo da ebaluazioa eta sail bakoitzean practicum teorikoa ematen duten irakasleen arabera izango da. Ebaluazioari buruzko informazioa azpipracticum bakoitzaren atalaren barruan agertuko da.

##### 1.5.2. Practicum Praktikoaren ebaluazioa

Practicum Praktikoa ebaluatzeko, bi tutoreen (barrukoaren eta kanpokoaren) ebaluazioak bateratuko dira.

Fakultate barruko tutorearen ebaluazioan ondorengoak hartuko dira kontuan:

- Tutoretza-prozesuan egindako elkarrizketak.
- Practicumaren koordinatzaileek aurretik zehaztutako formatuaren arabera aurkeztutako oroitza-txostenaren balorazioa.
- Bakarkako elkarrizketa ikaslearekin, gutxi gorabehera 15 minutukoa, praktiketan ikasitakoaren inguruan.

## 2. PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMA

UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduetako Sailak Psikologia Klinikoko bi Practicum eskaintzen ditu.

- Helduen Psikologia Klinikoko Practicuma
- Haur eta gazteen Psikologia Klinikoko Practicuma

Bi Practicumak bat datoz helburu orokor batzuetan, baina bakoitzak bere izaera dauka; izan ere, Practicum bakoitzak bere berariazko helburuak, lan-esparrua eta/edo hitzarmena sinatu duten zentroak baititu.

### 2.1. PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMAREN HELBURU OROKORRAK

Psikologia Klinikoko Practicumean ondorengoak daude sartuta:

- Bizi-ziklo guztian eboluzio-garapen normala zaintzea.
- Ebaluazioa, hainbat eratakoa (bakarkakoa, taldekoa, erakundeena, programena...).
- Arazo psikopatologikoen aurrean orientazioa.
- Lan-jarduneko eremuetan esku-hartze terapeutikoa: klinikoa, hezkuntzakoa, gizartekoa...

### 2.2. PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMERAKO AURREBALDINTZAK

Psikologia Klinikoko Practicumean sartzeko, berriz, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Gutxienez 230 kreditu gaindituak edukitzea ezohiko deialdia eta gero; Baldintza hau ez bada betetzen, practicum teorikoan matrikulatu ahal izango da bakarrik. Hala ere, hurrengo otsailean baldintzak beteko balira bigarren matrikulaldia onartuko litzateke.
- Ondorengo enborreko irakasgai hauek gaindituta izatea:
  - Ebaluazio Psikologikoa
  - Tratamendu Psikologikoak
  - Psikopatologia

### 2.3. HELDUEN PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMA

#### 2.3.1. Helduen Psikologia Klinikoko Practicumaren eremuak

Helduen Psikologia Klinikoko Practicuma batik bat Buru Osasuneko Zentroetan eta Asistentzia Zentroetan garatzen da, baina baita Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduetako Saileko irakaskuntza- eta lan-jarduerekin zerikusia duten Gizarte Zentro eta Zentro Pribatuetan ere.

#### 2.3.2. Helburuak eta egin beharreko jarduerak

- Psikologoaren lan-errealitatearekin harremanetan jartzea.
- Psikologoak buru-osasuneko zein zerbitzutan aritzen diren jakitea (zentroen egituraketa, dinamika, funtzioak...).
- Ebaluazioak eta tratamenduak behatzea.
- Eremu klinikoko ebaluazio praktikan trebatzea (elkarrizketa, ebaluazioaren diseinua, datuak jasotzea eta aztertzea, txosten psikologikoa egitea, emaitzak itzultzea eta ebaluatzea).
- Ebaluatze eta tratatzeko teknika zehatzen ezagutzara gerturatzea.

- Dagoeneko tratatuta dauden kasu klinikoak eztabaidatzea. Kasu horiek ebaluatu, tratatu eta emaitza terapeutikoak aztertu eta eztabaidatu egingo dira.
- Esku hartzeko programak diseinatzen eta ezartzen trebatzea.
- Taldean lan egiten ikastea, lanbide arteko lankidetzaz sustatuz.
- Burutzen duten lan-jardueraren txostenak egiten ikastea.
- Zentroaren lan klinikoaren ezagutzea eta lan horretan parte hartzea.
- Zentroko lan klinikoan parte-hartzea, zuzenean zein zeharka.
- Zentroak lehentasunezko zatitza jotzen dituen ziklo eta jardueretan aholkuak jasotzea eta laguntza ematea.
- Asistentzia zentroetara joaten direnak orientatzea eta tratatzea.
- Pazienteei euren errealitateari egokitzen laguntzea, eta horretarako beharrezko aldaketak egitea.

### 2.3.3. Helduen Psikologia Klinikoko Practicum Teorikoa

- Ikasketa-planean nahitaezko irakasgai teorikoa da eta Psikologia Klinikoko Practicumaren barruan dago. Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduetako Sailekoa da. Lizentziaturako 5. mailan ikasten da, lehen lauhilekoan. Gehienetan, iraila eta urria artean. 9 kreditu dauzka. Helduen Psikologia Klinikoko Practicum Teorikoak bi atal dauzka: hitzaldiak eta klase teoriko-praktikoak.

#### Hitzaldiak

Zentro laguntzaileetako profesionalek ematen dituzte, hainbat informazio jakinarazteko: zentroaren helburuak eta lan-metodologia, zer-nolako pertsonak zaintzen dituzten, lan-ordutegia, Zentroko talde-dinamika, etab.

#### Klase teoriko-praktikoak

UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Nortasun eta Psikologi-Ebaluaketa tratamendurako saileko irakasleek ematen dituzte klaseak.

### 2.3.4. Practicum praktikoa

Practicum praktikoa 250 ordukoak izaten dira eta kanpoko lan Zentroetan egiten dira. EHUko Psikologia Fakultateak hitzarmenak sinatzen ditu hainbat zentrotan eta hitzarmen horietan dago araututa, hain zuzen ere, bi erakunde arteko harremana. Erakunde horietako gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan daude.

Gaur egun, Fakultate honetako ikasleek ondorengo lekuetan egin ditzakete praktikak:

#### ZENTRO PUBLIKOAK (Osakidetza eta Osasunbidea)

- Ospitale Orokorak – Psikiatri Zerbitzua
- Ospitale psikiatrikoak
- Buru Osasuneko Zentroak

#### ZENTRO PRIBATUAK

- Ospitaleak –Psikiatria
- Zentro Klinikoak
- Elkarteak:
  - Toxikomaniak
  - Urritasunak
  - Laguntza emozionala



- Zainketa aringarriak eta beste batzuk
- Asistentzia Zentroak, Elikadura Arazoen Zentroak eta beste batzuk
- Hirugarren adinekoak
- Eskizofreni tailerrak
- Psikologia Klinikoko Zentro Pribatuak
- Psikologia Juridikoko Zentro Pribatuak
- Harrera Zentroak

## 2.4. HAUR ETA GAZTEEN PSIKOLOGIA KLINIKOKO PRACTICUMA

### 2.4.1. Zer da Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoko Practicuma?

Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoko Practicuma batik bat Buru Osasuneko Zentroetan eta Ikastetxeetan garatzen da, baina baita Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduetako Saileko irakaskuntza- eta lan-jarduerekin zerkusia duten Gizarte Zentro eta Zentro Pribatuetan ere.

### 2.4.2. Helburuak eta egin beharreko jarduerak

#### Buru Osasuneko Zentroak

- Psikologoak Osakidetzako zein zerbitzutan aritzen diren jakitea (zentroen egituraketa, dinamika, funtzioak...).
- Ereku klinikoko ebaluazioan trebatzea (elkarrizketa, ebaluazioaren diseinua, datuak jasotzea eta aztertzea, txosten psikologikoa egitea, emaitzak itzultzea eta ebaluatzea).
- Ebaluazioak eta tratamenduak behatzea.
- Dagoeneko tratatuta dauden kasu klinikoak eztabaidatzea. Kasu horiek ebaluatu, tratatu eta emaitza terapeutikoak aztertu eta eztabaidatu egingo dira.
- Esku hartzeko programak diseinatzen eta ezartzen trebatzea.

#### Ikastetxeak

- Hezkuntzako lan-errealitatearekin harremanetan jartzea.
- Lanbide arteko lankidetzan trebatzea, banakako lan-interes guztien gainetik helburu nagusia hezkuntza izanik.
- Jarduera batzuk esperientziaren bidez ezagutzea: ebaluazio-jarduerak (diagnostikorako teknikak, zuzenketa, interpretazioa eta ondorioak), esku hartze prebentiboa eta terapeutikoa (hezkuntza eta jokaerari loturiko helburuetan)
- Burutzen duten lan-jardueraren txostenak egiten ikastea.
- Urritasuna eragiten duten kausen, arazo emozionalen eta/edo heldutasunekoaren eta arrisku-faktoreak dituzten ikasleen diagnostiko goiztiarra.
- Ikasleen ikasketa eta/edo garapen afektibo normala zailtzen duten alderdiak tratatzen laguntzea.
- Irakasleekin eta ikastetxeko langileekin batera, heziketa-lanetan zuzenean edo zeharka parte hartzeko aukera izatea.

- Ikastetxeak lehentasunezkoztat jotzen dituen ziklo eta jardueretan aholkuak jasotzea eta laguntza ematea.
- Ikasketa-maila edo ikasketa-modalitatea aldatzeko unea iritsirik eta/edo gaitasunen arabera eta norberaren interesen eta motibazioen arabera ikasleak diagnostikatzea eta orientatzea.
- Ikasteko zailtasunak eta/edo arazo emozional arinak dituzten ikasleen banakako diagnostikoak egitea, orientazioa ematea eta tratamendua egitea.
- Logopedia-tratamenduan laguntzea, zailtasun dislalikoak dituzten hurrek behar bezala ahoska dezaten.
- Oinarrizko gai instrumentalak (irakurketa, idazketa eta kalkulua) ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak berrezteko jardueretan laguntzea.
- Beharrezkoztat jotzen denean, emozioak adierazteko eta gizartera egokitzeko funtzioak errazteko tailerrak diseinatzeko eta/edo inplementatzen laguntzea.

#### 2.4.3. Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoko Practicum Teorikoa

Ikasketa-planean nahitaezko irakasgai teorikoa da. Psikologia Klinikoko Practicumaren barruan dago, haur eta gazteen espezialitatearen barruan. Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduetako Sailekoa da. Lizentziaturako 5. mailan ikasten da, lehen lauhilekoan. Gehienetan, iraila eta urria artean, eta 9 kreditu dauzka.

- Haur eta Gazteen Psikologia Klinikoko Practicum Teorikoak bi atal dauzka:

Hitzaldiak

Zentro laguntzaileetako profesionalek ematen dituzte, hainbat informazio jakinarazteko: zentroaren helburuak eta lan-metodologia, zer-nolako pertsonak zaintzen dituzten, lan-ordutegia, Zentroko talde-dinamika, etab.

Klase teoriko-praktikoak

UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Nortasun eta Psikologi-Ebaluaketa tratamendurako saileko irakasleek ematen dituzte klaseak. Klasetan emango den eduki teorikoa gai hauen ingurukoa izango da:

a) Haur eta gazteen Psikologia Klinikoko praktikara sarrera. Alderdi kontzeptualak, berariazko lan arloak:

- Buru Osasuna
- Ikastetxeak
- Laguntza Zerbitzu Sozialak
- Arreta Juridikorako Zerbitzuak
- Beste batzuk

b) Berariazko lan klinikoko ebaluazio-baliabideen berrikuspena:

- Lan klinikoko teknika eta metodo anitzak erabiltzea.
- Haur-ebaluazioan informatzaile anitzak eta txosten anitzaren baliabideak.

c) Kasu Klinikoetako lan-sistema

- Kasu klinikoak banan-banan aztertzea. Talde-lana, diagnostikoa ulertzeko eta esku-hartze terapeutikoa gauzatzeko galderekin.
- Aztertutako kasu klinikoetan eginiko proba psikologiko ezezagunak aplikatzea, zuzentzea eta interpretatzea.
- Testuak irakurtzea.
- Etengabeko ebaluazioa eta irakasgaiko ondorioak norberak idaztea.

Azken notan ondorengoak hartzen dira kontuan: klaseetara bertaratzea (notaren % 20), talde lana (notaren % 40) eta ondorioak biltzeko eta ikasitakoaren inguruko balorazioa egiteko ikaslearen txostena.

#### 2.4.4. Practicum Praktikoa

Practicum praktikoa gutxi gorabehera 250 ordukoak izaten dira eta Praktiketarako Zentro laguntzaileetan egiten dira. Izan ere, EHUKo Psikologia Fakultateak Hitzarmenak sinatzen ditu hainbat zentrokekin eta hitzarmen horietan dago zehaztuta eta araututa, hain zuzen ere, unibertsitatearen eta erakunde edo enpresaren arteko harremana.

Gaur egun, Fakultate honetako ikasleek ondorengo lekuetan egin ditzakete praktikak:

#### ZENTRO PUBLIKOAK (Osakidetza eta Osasunbidea)

- Ospitale Orokorak – Psikiatri Zerbitzua;
- Ospitale Psikiatrikoak;
- Buru Osasuneko Zentroak.
- Ikastetxeak

#### ZENTRO PRIBATUAK

- Zentro Klinikoak
- Elkartek
- Toxikomaniak
- Urritasunak
- Laguntza emozionala
- Psikologia Klinikoko Zentro Pribatuak
- Psikologia Juridikoko Zentro Pribatuak
- Harrera Zentroak
- Ikastetxeak

### 3. GIZARTE PSIKOLOGIA ETA ERAKUNDEEN PSIKOLOGIAKO PRACTICUMA

Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila Gizarte Psikologia eta Erakundeen Psikologiako Practicumaren antolatzaile eta zuzendaria da. Practicum hori beste bitan banatzen da: Lanaren eta Erakundeen Psikologia eta Gizarte Zerbitzuen Eremuan Esku-hartze Psikologikoa.

### 3.1. HELBURU OROKORRAK

- Ikasleak Lanaren, Erakundeen eta Langileen Psikologia eremuko psikologoaren laneko eginkizun eta zereginetara ohitzea.
- Espezialitate honetan beharrezkoak diren laneko gaitasunen (oinarrizkoak eta espezifikokoak) jabetasuna osatu eta integratzea.
- Espezialitateko ikasleen laneratzea erraztea.

### 3.2. LANAREN ETA ERAKUNDEEN PSIKOLOGIARAKO PRACTICUMA

#### 3.2.1. Lanaren eta Erakundeen Psikologiaren jardun-eremuak

##### LANGILEEN HAUTAKETA, EBALUAZIOA ETA ORIENTABIDEA

- Lanpostuaren azterketa
- Hautaketa-elkarrizketak
- Langileen ebaluazioa
- Errendimenduaren ebaluazioa
- Lanbide-orientazioa
- Langileak errekrutatzea
  - Egokimenezko probak, ...
- Ahalmenaren ebaluazioa
  - Lan-bilaketa

##### PERTSONEN KUDEAKETA ETA GARAPENA

- Prestakuntza
- Barne-komunikazioa
- Laneko giroa
- Gaitasunen araberako kudeaketa
- Langileen kudeaketa
- Taldeen garapena
- Motibazio-plana
- Gogobetetze-maila
- Laneko bizi-kalitatea
  - Ezagutzaren kudeaketa
- Gatazken kudeaketa

##### ANTOLAKUNTZA ALDAKETA ETA GARAPENA

- Lanpostuen diseinu berria
- Lanaren antolakuntza
- Antolakuntzaren Kultura
- Erabakiak hartzea
- Negoziazioa eta bitartekotza
- Laneko prozesuak
- Kalitatea eta Europako Eredua
  - Egitura eta agintea
  - Zuzendaritza estiloa

##### LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

- Arrisku psikosozialen faktoreak ebaluazioa
- Aurreneurriak eta neurri zuzentzaileak
- Mobbing
- Arriskuaren Prebentziorako Programak
- Ahultasuna
- Ergonomia
- Arrisku psikosozialen
  - Estresa
  - Lanarekin nazka-nazka eginda egon
  - Antolakuntza-Osasunerako Programak
- Gaueko eta txandakako lana

##### MARKETINA ETA KONTSUMOA

- Merkatu-ikerketa
- Erosketa-jarrera
- Kontsumitzailearen jokabideak marketina
- Kontsumo-azterketa
- Publizitatearen eraginkortasuna
- Produktuaren

### 3.2.2. Practicum Teorikoa

Lanaren eta Erakundeen Psikologiako Practicum Teorikoa irailean hasiko da. Practicum Teorikoaren irakats programa fakultate kanpoko zenbait profesionalek eta fakultate barruko zenbait tutore irakaslek emango dute. Programa honakoa da:

- Langileen Kudeaketarako Teknikak
- Antolakuntza-diagnostikorako teknikak
- Erabateko Kalitatearen Europako Eredua
- Lan-osasuna
- Etika eta deontologiaren alderdiak

Ebaluazioa lanen eta azterketen sistema misto baten bidez egingo da. Ezinbestekoa da eskoletara bertaratzea.

### 3.2.3. Practicum Praktikoa

Ikasleek Practicum Praktikoa zenbait enpresatan egin dezakete, Fakultateak eta enpresak lankidetzaz hitzarmena sinatuta duten kasuetan, hain zuzen ere. Praktikak hiru epealditan egin ditzakete: urritik otsailera, otsailetik ekainera eta ikasturte osoan zehar. Epealdiaren arabera, ikasleen praktika-saioa 4 eta 6/8 ordu bitartekoa izan daiteke egunean.

### 3.2.5. Plazak Esleitzeko Prozesua

1. Plazen eskaintza: ekain bukaeran
2. Argibideak emateko bilera: uztailaren hasieran
3. Plaza eskatzea: 2 edo 3, lehentasun-ordenaz.
4. Enpresak hautaketa egitea: uztailaren 2. hamabostaldian
5. Esleitutako plazen behin-behineko zerrenda: uztail bukaeran
6. Plazen behin betiko zerrenda: irailaren 1. hamabostaldian

## 3.3. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMA

### 3.3.1. HELBURU OROKORRAK

- Gizarte Zerbitzuen arloko psikologo laneko eginkizun eta zereginetara ohitzea.
- Espezialitate honetan beharrezkoak diren laneko gaitasunen (oinarrizkoak eta espezifikokoak) jabetasuna osatu eta integratzea.
- Espezialitateko ikasleen laneratzea erraztea.

### 3.3.2 GIZARTE ZERBITZUEN PRACTICUMA EGITEKO AURREBALDINTZAK

Gutxienez 230 kreditu gaindituak edukitzea ezohiko deialdia eta gero; Baldintza hau ez bada betetzen, practicum teorikoan matrikulatu ahal izango da bakarrik. Hala ere, hurrengo otsailean baldintzak beteko balira bigarren matrikulaldia onartuko litzateke.

Gizarte eta Talde Esku-hartzea delako irakasgaia gaindituta izatea.

### 3.3.3. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMAREN JARDUN-EREMUAK

- Komunitate mailako esku-hartzea.
- Familia eta Haurrak.
- Hirugarren Adina.
- Urritasunak, ezgaitasunak eta minusbaliotasunak.
- Emakumea
- Gazteria.
- Gizarteko gutxiengoak eta inmigranteak.
- Garapenerako lankidetzak.

### 3.3.4. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMERAKO BEHARREZKO TREBETASUN SOZIALAK

- Legedia ezagutzea.
- Esku-hartze sektoreen ezaugarri psikosozialak.
- Esku hartzeko estrategiak: Banakoen mailan, Talde mailan eta Komunitate mailan.
- Gizarteko esku-hartzearen eredu teorikoak.
- Plangintza, premien diagnostikoa eta programen ebaluazioa

### 3.3.5. EBALUAZIO SISTEMA

Kanpoko tutorearen ebaluazioa.

Egindako jardueren oroitza-txostena aurkeztea.

### 3.3.6. GIZARTE ZERBITZUETAKO PRACTICUMEKO AZPIESPEZIALITATEAK

- Hirugarren Adina. Adinekoen egoitzetan lan egitea. Gizarteko esku-hartze programak. Gipuzkoan daude plazak.
- Haur babesa. Harrera-zentroetan praktikak egitea. Familien balorazioa eta kasuen jarraipena egitea. Araban, Nafarroan eta Gipuzkoan daude plazak.
- Komunitate mailako esku-hartzea. Komunitatean esku hartzeko zentroak: sexu-hezkuntza, osasun-hezkuntza, gazteen drogamenpekotasuna, inmigrazioa, kooperazioa, eta abar. HIESa. Zentro Pribatuak / AECC / PSF / Comisión Ciudadana. Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan daude plazak.

## 4. HEZKUNTZA PSIKOLOGIAKO PRACTICUMA

### 4.1. HEZKUNTZA PSIKOLOGIAKO PRACTICUMAREN HELBURUAK

1. Ikaslea laneko eta lanbideko errealitatearekin harremanetan jartzea, eta etorkizuneko lan-jardunerako gai eginaraztea.
2. Ikasleak eskola eta hezkuntza arloan, batik bat, psikologiak dituen aplikazioei buruzko praktikak egitea.
3. Psikologoak hezkuntza arloan dituen oinarrizko laguntza-prozeduren gaineko eskarmentua lortzea ikasleak, lanbide-etorkizunerako beharrezkoak izan litezkeen zenbait trebetasun ikas ditzan.
4. Ikasleak karreran ikasitako ezagutza teorikoak barneratu eta erabili ditzala lortzea, lanbide-praktikaren bidez.

### 4.2. HEZKUNTZA PSIKOLOGIAKO PRACTICUMEKO JARDUERAK

Hezkuntza Psikologiako Practicumeko ikasleek hiru arlo hauetako jardueretan parte har dezakete praktikaldian:

#### 4.2.1. Prebentzio Arloa (Prebentzio Laguntza)

- Ikastetxeko zenbait programa aplikatzen laguntzea: ikasteko tekniken programak, gatazken ebazpena, elkarlanerako portaera, sexu-hezkuntza, garapen psikomotorra, Kirol-gaitasunak, etab. sustatzearekin lotutako programak.
- Guraso eta irakasleei prestakuntza eta informazioa emateko jardueretan laguntzea: Prestatzaileen prestakuntza, kirol- eta gerontologia-zentroetako langile laguntzaileen prestakuntza, Guraso Eskola, eta abar.

#### 4.2.2. Jardueren ebaluazio eta diagnostiko arloa

- Ikastetxean edo beste zentro batean aplikatzen diren programak ebaluatzeko jardueretan laguntzea.
- Ikastetxeko zuzendaritza-taldearen koordinazio eta ebaluazio bileretan parte hartzea.
- Taldeei eta banakoei egin beharreko proba psikometrikoak aplikatu, zuzendu eta interpretatzea.
- Diagnostikoa egiteko baliabideetara ohitzea.
- Ikastetxean dagoen banan-banako kasuistika aztertzea, gainbegirale baten laguntzaz.
- Talde-mailako eta banan-banako txostenak egitea.
- Tutoretzen programazioan parte hartzea.

#### 4.2.3. Laguntza Arloa (Prebentziozkoa ez den Laguntza)

- Ikasleei orientatzeko jardueretan laguntzea: ikastetxe barneko orientabidea eta bokazioari buruzko orientabidea (goi-mailako ikasketak aukeratzeko, eta abar).
- Laguntza-geletan lan egitea eta bertako plangintza egiten laguntzea.

- Pedagogiako laguntza-programetan aritzea.
- Kirolaren eta gerontologiaren arloetan esku hartzeko programetan laguntzea.

#### 4.3. PRACTICUM TEORIKOA

Practicum bat diseinatu da, ikasleak hezkuntzaren, gerontologiaren edo/eta kirolaren arloan psikologia aplikatu ohi den eguneroko errealitatera hurbiltzeko asmoz. Prestakuntza orokorra da, eta hiru lanbide-profil ditu bere baitan:

- Modulu orokorrak, diziplina anitzetan aplikatzekoak.
- Modulu espezifikoak, hezkuntzaren arloan aplikatzekoak.
- Modulu espezifikoak, gerontologiaren arloan aplikatzekoak.
- Modulu espezifikoak, kirolaren arloan aplikatzekoak.

##### 4.3.1. Practicum Teorikoaren edukiak

1. DBHko orientatzailea : eginkizunak.
2. Gatazkak konpontzeko programa Eskolan.
3. Jokabide altruista.
4. Bokazioari loturiko orientabidea.
5. Familia Hezkuntza arloko aholkularitza.
6. Kirol arloari aplikatutako psikologia.
7. Garapen Moralerako esku-hartze programa.
8. Afektu- eta sexu-hezkuntza programa DBH mailan.
9. Garapenaren nahasteak eta hezkuntza-psikologiako esku-hartzea ume supergaituekin.
10. Gizarte Ezagueraren Garapena Eskolan.
11. Hiperaktibitateak eragindako arreta-faltaren nahastearen detekzio goiztiarrerako irizpideak.
12. Hirugarren adinekoen hezkuntzako esku-hartzea.

Hezkuntza Psikologiako Practicumean izena ematen duten ikasleei prestakuntza teorikoaren egutegia igorriko zaie.

Prestakuntza teorikoaren osagarri modura, jardunean dauden zenbait profesionalek beraien esperientziak azalduko dizkiete ikasleei zuzenean.

Practicumak diziplinen arteko filosofia argiari eta nolabaiteko espezializazioari eustea du helburu; izan ere, antza denez hezkuntza munduak horixe eskatzen du, psikologoak askotariko arazoei aurre egin behar baitie. Argi eta garbi dago prestakuntza ireki eta askotariko barik, ikasleak ezinezkoa izango duela arazoei aurre egitea.

#### 4.4. PRACTICUM PRAKTIKOA:

Ikasleek honako baldintzak bete behar dituzte Practicum Praktikoan matrikulatu ahal izateko:

- Hezkuntzaren Psikologia irakasgaia gaindituta izatea.



- Gutxienez 230 kreditu gaindituak edukitzea ezohiko deialdia eta gero; Baldintza hau ez bada betetzen, practicum teorikoan matrikulatu ahal izango da bakarrik. Hala ere, hurrengo otsailean baldintzak beteko balira bigarren matrikulaldia onartuko litzateke.

Ikastetxe eta zentroen sorta zabala aukeratu da eta Hezkuntza Psikologiaren egungo aplikazio-eredu guztiak bilduta daude bertan.

Lankidetzta-erakundeek (GGKE) garapen-bidean dauden herrialdeetan egiten dituzten proiektuetan ere praktikak egiteko aukera dago. EHUko Ikerketako eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzaren programa da eta bere Garapenerako Lankidetzta Bulegoak kudeatzen du.

Practicumeko koordinatzailea arduratzen da ikasleak zentroetara esleitzeaz. Prácticumeko teknikaria emango die ikasleei esleitzearen berri, Practicum Teorikoa bukatu eta gero.

Practicumeko ikasleak normalean bikoteka egongo dira zentro hartzaileetan, bikote bat hiruhileko bakoitzean. Zentro bakoitzak eskatu duen hizkuntza profilarekin bat egingo dute plazek eta ikasle guztiak beraien lurralde historikoan egon ahal izango dira. Ikasleren bat zentroren batekin harremanetan egongo balitz eta praktikak bertan egin nahi izango balitu, Practicumeko teknikariari maiatzaren 31 baino lehen jakinarazi beharko lioke.

Ikasleek astean lauzpabost egun igaro beharko dituzte zentroetan; hain justu, egun bakoitzean lau ordu, hiru hilabetean zehar (aldakorra izan daiteke). Era horretan, Practicumari dagozkion 250 orduak beteko dituzte.

Ikasleek kanpoko eta barruko tutore bana dute. Fakultateak berak esleitzen dio barruko tutorea.

Praktiken hiruhilekoak honela antolatuta daude:

1. Txanda: urria-urtarrila
2. Txanda: otsaila-ekaina

Nahitaezkoa da praktikak hasi baino lehen barne tutorearekin kontaktuan jartzea. Hala ez bada, praktikak ebaluatu gabe gera daitezke.

## 5. PSIKOLOGIAREN OINARRIZKO IKERKETAKO PRACTICUMA

### 5.1. HELBURU OROKORRAK

Psikologiaren Oinarrizko Ikerketako practicumaren helburu nagusia da ikasleek ikertzen ikertuz ikastea, hau da, ikerketak dituen etapetan esperientzia praktikoa lortuz ikastea. Kasu askotan ikasleak Saileko ikerketa talde ezberdinen dinamikan sartzen dira eta pixkanaka egiten ari diren ikerketetako eginbeharretan parte hartzen dute. Egin behar horien artean daude, besteak beste, ikergaiaren inguruko informazioa bilatzea, lan zientifikoak irakurtzea eta datuak biltzea. Psikologiaren Oinarrizko Ikerketako practicum hau Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapena Saileko hainbat irakasle zuzendutako modulu edo "azpipracticumekin" dago osatua. Ikasle bakoitzak irakasle bat aukeratu beharko du.

Jakinaraziko dira zeintzuk diren ikasturte bakoitzeko ikerketa ildoak, Practicuma aurkezteko jardunaldian, martxoan edo apirilean.

## 6. PSIKOLOGIA FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ARDURADUNEN ZERRENDA

Profesor/a	Practicum	Función	Teléfono	e-mail
Azpiroz, Arantza		Koordin atzaile nagusia	9430183 20	<a href="mailto:ssrdecan@ss.ehu.es">ssrdecan@ss.ehu.es</a>
Eceiza, Amaia	Hezkuntza Psikologia	Koordina tzailea	943- 015736	amaia.eceiza@ehu.es
Gómez, Javier	Psikologia Klinikoa	Koordin atzailea	943- 015657	<a href="mailto:javier.gomezz@ehu.es">javier.gomezz@ehu.es</a>
Arrospide, Juan José	Lana eta Erakundeak	Koordin atzailea	943- 015682	<a href="mailto:juajose.arrospide@ehu.es">juajose.arrospide@ehu.es</a>
De Paul, Joaquin	Gizarte Zerbitzuak	Koordina tzailea	943- 018308	joaquin.depaul@ehu.es
Maganto, Carmen	Garapenarekin kooperazioa	Coordina dora	9430183 44	carmen.maganto@ehu.es
González, Ángel	Garapenarekin kooperazioa	Koordin atzailea	943- 015696	<a href="mailto:pbpgoala@ss.ehu.es">pbpgoala@ss.ehu.es</a>
Sanchez, Jose Ramón	Oinarrizko ikerketa	Koordina tzailea	9430157 29	joseramon.sanchez@ehu.es
González, Arantza		Zentroko Teknikari a	9430156 37	arantza.gonzalez@ehu.es
Alonso, Loli		Administ ratzailea	943- 018315	loli.alonso@ehu.es